

**EHUko 2023/2024ko funtzionarioen
EPEan izena emateko eta informazioa
eskuratzeke gida**



Aurkibidea

HITZAURREA	3
IZEN-EMATEA.....	4
EPEaren INFORMAZIOA ETA JARRAIPENA.....	8
AZKEN HITZAK	13



HITZAURREA


Dakizunez, irailaren lehenetik irailaren 21era bitartean irekita dago funtzionarioen 2023/2024 EPEan izena emateko epea.

Horren harira, LAB-EHU sail sindikalak gida hau prestatu du. EHUKo zein EHUtik kanpoko langileentzat egina denez, oso oinarritzakoak diren informazio eta argibideak modurik argienean azaltzen saiatu gara.

Idatzi honetan, 2023/2024 EPEan izena emateko eta EPEaren jarraipena egiteko argibideak aurkituko dituzu, baita aholku batzuk ere.

Aurreko EPEetako eskarmentuari erreparatuta, ohikoena EHUK berak, oposaketan ematen den pauso bakoitzaren berri partaide diren guztiei zabaltzea izaten da. Horregatik, gida honetan EPEaren lehen urratsak azaltzen zentratuko gara.

Azkenik, hemen aurkituko duzunak ez du inolaz ere ordezkatzeko EHUREN bitartez (informazio-iturri ofiziala denez gero) helarazten zaizuna; izan ere, gida hau osagarria izateko asmoz egin da.



EPE honetarako berariaz sortutako gunean, LABek informazio guztia jarri du zure eskura. Bertan aurkituko dituzu, besteak beste, galdetegiaren erantzunak eta intereseko hainbat xehetasun.

[\[↑ Itzuli aurkibidera\]](#)

IZEN-EMATEA

Oinarri Orokorren 5.1, puntuak dionari jarraituz izen-ematea, soilik bide telematikoz egitea onartuko da.

Puntu horretan bertan, parte-hartze eskaera egiteko helbidea ematen da:
https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp . Loturak zuzenean EHUn Lan Eskaintzen Atariaren web gunera garamatza.

UPV/EHUko Lan-eskaintzen Ataria

Orrialde honetatik UPV/EHU-ko hautaketa-prozesuetan (OPE eta lan-poltsak) parte hartzeko izen-emateak egin ditzakezu online, baita egin dituzun eskaerak kontsultatu ere. Horretarako, zure erabiltzailea (NAN/AIZ/Pasaportea) eta pasahitza sartu behar dituzu.

Identifikazioa
NAN/AIZ/Pasaportea

Pasahitza

Konexioa
[Pasahitza ahaztu zaizu?](#)

Zure NAN, AIZ edo Pasaportea Lan-atarian erregistratuta ez badago, erabiltzaile gisa izena eman dezakezu 'hemen'

Eskaera egiten hasteko lehenik geure burua identifikatzea eskatuko zaigu. Horretarako, hiru bide izango ditugu.

Lehena, noizbait EHUn datu-basean erregistratu bagara, NAN zenbakia eta pasahitza jarri eta sartzea da.

Bigarrena, noizbait erregistratu baina pasahitza ahaztu badugu erabiliko dugu. Kasu horretan, dagokion lekuan klik egin eta NAN zenbakiarekin identifikatu ondoren, sistemak pasahitz berri bat bidaliko du erregistroa egin genuenean emandako e-postara.

Pasahitza berreskuratzea

Mesedez, sartu zure identifikazio-dokumentua, hizkiak ere bai baldin badago, eta egiaztatu ondoren, pasahitza berria bidaliko dizugu posta elektronikora. Pasahitz berri hau aldatuko ahal duzu sistemarekin konektatu eta gero.

NAN/AIZ/Pasaportea:

<< Atzera

Hurrengoa >>

Azkenik, inoiz EHUUn erregistratu ez bagara, eskaera egin aurretik erregistratzea eskatuko zaigu. Horretarako “hemen” loturan klik egin beharko dugu. Jarraian, sistemak lehendik erregistratuta gauden ala ez ziurtatzeko galdetuko digu; “ados” sakatu eta erregistratzeko plantilla irekiko da.

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UPV/EHUko Lan-eskaintzen Ataria

AZP Laguntza Gida | Kontsultak | Deskonektatu

Lan-eskaintzen Atarian erregistratzea

Sartu beharrezko datuak eta egin klik **Datuak bidali** Asteriskodun laukiak bete behar dituzu derrigor

Datu pertsonalak	Helbidea
* Izena	* Kale-mota
* 1. abizena	* Kalearen izena
* 2. abizena	* Zenbakia
* Identifikazio-dokumentu mota	Solairua
* Dokumentu-zk.	Atea/Aldea
* Jaiotze-data:	* Herrialdea
* Herrialdea	* Erkidegoa
Sexua	* Probintzia
	* Udalerria

Telefonia

* Telefonoa

Posta elektronikoa

* Posta elektronikoa

Pasahitza sortu eta egiaztatzea

Gogoratu behar dituzu hasierako erregistro honetan jarritako identifikazio-zenbakia eta pasahitza; izan ere, Lan-eskaintzen Atarira sartzen zaren guztietan eskatuko zaizkizu.

* Pasahitza

* Baiezatu pasahitza

Datuak bidali

Datuak sartu eta pasahitza jarri ondoren datuak bidali eta sistemak gure posta elektronikora bidaliko digu erregistroaren baieztapena. Hemendik aurrera, jada EHUren datu-basean erregistratuta egongo gara eta parte-hartze eskaera egiten hasi gaitzeke. Lan Eskaintzen Atariaren web gunera joan eta identifikatuta sartuko gara, bertan orri hau irekiko zaigu:

Atal honetan UPV/EHUren lan-eskaintzen deialdiak ikusi ahal izango dituzu eta, eskariak aurkezteko epea zabalik dagoen bitartean, izena eman ahal izango duzu zure interesekoetan. Kontuan izan eskariak bidali ondoren ezin direla aldatu.

Eskaera berria

Klik egin hemen EPEan parte hartzeko eskaera egiten hasteko

Atal honetan UPV/EHUren lan-eskaintzen deialdietan parte hartzeko egin dituzun eskariak kontsultatu ahal izango dituzu.

Zure eskaerak

Atal honetan UPV/EHUK zutaz eta Lan-eskaintzen Atariari lotuta duen informazioa kontsultatu ahal izango duzu, bai eta helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa aldatu ere. Kontuan izan, aldaketa egin duzuetik aurrera, izena emandako prozesu guztiei buruzko komunikazioak edo eta jakinazpenak helbide, telefono edo posta elektronikora helduko zaizkizula, besterik adierazten baduzu. Egiaztatutako hizkuntza-eskakizun eta titulazio-taldeari buruzko datuak ere aldatu ahal izango dituzu. Orria aldatu aurretik, egiaztatu ondo gorde dituzula datu berriak. Zalantzarik izanez gero, egin klik "Kontsultak" estekan.

Zure datu pertsonalak

Hurrengo pantailan hiru deialdi aurkituko ditugu: 2023/2024 EPEari dagokiona, itxita eta ebatzita dagoen 2019-2022 EPEari dagokiona eta lan-kontratudunen hainbat lan-

poltsetara sartzeko deialdia, hau ere itxita dagoena. Guri, lehenengoa da interesatzen zaiguna.

Deialdia (Lan Eskaintza Publikoa): EPE 2023-2024

Hautaketa-prozesua	Titulazio-taldea	Eskariak aurkezteko epea	Eskatu
Gestiko Teknikaria Eskalako Psikologia prozesu espezifikoak	A	2026-09-01 -> 2026-09-21	
Administrarien Eskala	C	2026-09-01 -> 2026-09-21	
Administrari Laguntzaileak Barne Promozioa	D	2026-09-01 -> 2026-09-20	
Menpekoen Eskala	E	2026-09-01 -> 2026-09-21	

Klik egin parte hartu nahi
d(it)uzun talde(t)an

Hurrengo pantailan, gure parte-hartze aukerak, etab. sartuko ditugu. Talde bat baino gehiagotan parte hartu nahi baduzu, esakerak banan-banan egin beharko dituzu. Hau da, lehenengo eskaera egin eta tasak ordaindu eta gero, berriz “Eskaera berria” estekara jo beharko duzu.

Eskaera betetzen hasi aurretik irakurri hurrengo oharrak:

OHARRA: Ikasketei dagozkien datuak sartzera koan, garrantzizkoa da izen-ematea den lehenengo urrats honetan parte hartuko dugun talderako bete beharreko ikasketa-maila dugula adieraztea. Adibidez: E taldean SOILIK Eskola-agiria eskatzen da; beraz, horren gaineko titulaziorik badugu, ez dugu momentu honetan adieraziko. Bestela, merezimenduak alegatzerakoan ez baitzaigu bigarrenaz kontuan hartuko. Gauza bera gainerako taldeetarako ere (D edo C2, C edo C1, eta A edo A1).

OHARRA: Kontuan hartu honako hau EPEan parte hartzeko eskaera besterik ez dela. Horregatik, lan-esperientziaren eta titulazio akademikoen (ikasketen eta atzerriko hizkuntzen) merezimenduak EZ dira momentu honetan alegatu edota egiaztatu behar, oposaketa fasea bukatu eta azterketa gainditu duten pertsonen behin-behineko zerrendak argitaratu ondoren baizik. Orduan irekiko da merezimenduak alegatzeko 10 egun balioduneko epea.

OHARRA: Datuen kontsulta egiteko baimena ematen badugu, EHUK bere kabuz saiatuko da gure titulazio akademikoen (atzerriko hizkuntzak barne) ziurtagiriak eta Administrazio publikoan (EHU barne) egindako lanaldien inguruko egiaztapena egiten. Agiri horiek lortzerik ez balu, EHUn Egoitza Elektronikoaren bitartez bidaltzea eskatuko zaigu.

Aldiz, datuen kontsulta egiteko baimenik ez badugu ematen, EHUn Egoitza Elektronikoaren bitartez dokumentazio guztia aurkeztu beharko dugu.

Onartua izateko eskaria: Administrazioaren Eskala - C

Izena		1. abizena		2. abizena	
Jaiotze-data:		Herrialdea		Sexua	
Identifikazio-dokumentua		Dokumentu-zk.			
Helbidea				Posta-kodea	
Herrialdea		Probintzia		Udalerrria	
Telefonoa		Posta elektronikoa		Tasa	

* Txanda

Oposizio fasea zer hizkuntzatan egin nahi duzu?

Ba al duzu ezindutasun agiria?

Adierazi etsaminak egiteko egokitzapenen bat behar duzun.

* Agertutako titulazioa (1)

Tasak ordaintzeki salbuestea

(1) Prozesuan parte hartzeko beharrezkoa dena, deialdiaren arabera (Ikasketa maila eta titulazio akademikoa aukeratu behar dituzu. Ez baduzu zurea aurkitzen, erabili testu libreko eremua identifikatzeko.

- ☐ Aipatu deialdiaren onartua izateko eskatzen du, eta adierazi egiten dut eskarian jarritako datu guztiak benetakoak direla, bai eta deialdi horretako oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen ditudala ere.
- Agiri hau sinatuta, adierazten duzu, libre izanik, zure datu pertsonalak [agiri honetan](#) jasotako baldintzetan tratatzearekin ados zaudela.
- Era berean, adierazten duzu jakinarazi ditutela, berariaz jakinarazi ere, zure adostasuna edozein unetan kentzeko eskubidea duzula, baina horrek ez duela inongo eragirik adostasuna kendu aurreko tratamenduaren zilegitasunean.

EHUK kontsultatuko eta egiaztatuko ditu bide telematikoen bidez, dagokion administrazio eskudunean, bere izapidetze administrazioak, hauek eskuragarri dauden heinean, eskabidean aipatutako honako datu hauek: nortasuna, ezgaitasuna, gidabaimena, tasa ordaintzeki salbuesteko egoerak, hezkuntza titulazioak, euskara agiriak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan emandako zerbitzuak. Interesdunak Datuen kontsulta egitearen aurka badaude, eskabidean aipatutako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

- ☐ Datuen kontsulta egiteko baimena ematen dut
- ☐ Datuen kontsulta egitearen aurka nago

Baimena ematen diot Euskal Herriko Unibertsitateari nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan.

Datuak gorde

Behin eskaera orria beteta "Datuak gorde" eta berrespen mezu bat azalduko da, dena ondo badago onartu eta eskaria egina dagoenaren egiaztatpena azalduko da. Orrian dauden esteken bitartez, eskaera deskargatu eta inprimatzeko aukera izango dugu, baita parte-hartzearen tasak ordaintzeko loturara joateko ere.

OHARRA: Salbuetsita dauden kasuetan ezik, tasak ordaintzea ezinbesteko baldintza da EPEan parte hartzeko.

Eskaria zuzen erregistratu da sisteman.

Nahi baduzu, eskaria ikusi edo inprimatu ahal duzu dagokion botoia sakatuta. Horretarako beharrezkoa da [Adobe Acrobat Reader](#) izatea, eta "Bloqueador de elementos emergentes" (Pop Ups) desaktibatuta eduki behar duzu.

Gogoratu prozesuan onartua izateko beharrezkoa dela tasa ordaintzea. Bi aukera daukazazu:

1. Ordainketa Sistemara sartu ahal izango zara dagokion orriko botoia sakatuta.
2. Ordainagiria inprimatu. Kasu horretan ordaindu ahal izango duzu:
 - Aurreko atalean zehaztutako entitateetan.
 - Aipatutako entitateetako barra-kodea duten kutxazain automatikoen.

Ordainketa une horretan egin nahi ez baduzu, ordainagiria inprimatu edo ondoren Ordainketa Sistemarekin konekta zaitezke "Zure eskariak" atalean. Eskariak aurkezteko epea amaituta, ezingo da ordaindu tasa.

Eskaria inprimatu

Ordainketa-sistemarako esteka

Ordainagiria inprimatu

Hemen klik egin
ordainketa plataformara
bideratzeko

Ordainketa mota aukeraketa

Finantza-erakundearen aukeraketa


Ordainketak berrikusi eta aukera ezazu Finantza-erakundea ordainketa gauzatzeko.

Ordainketen zerrenda

Igorlea	Ordainagiria	Zenbatekoa €	Xehetasuna
UPV-EHU	UPV/EHuko pertsonala hautatzeko deialdian izena emateagatik ordaindu beharreko tasa (00.01)	20,68 €	i

Finantza-entitateak

Aukeratu ordainketa zein finantza-erakunderen bidez egin nahi duzun



Bestela, sistema honen bidez egin dezakezu ordainketa

VISA MasterCard Maestro Beste erakundearen txartelak.

bizum Bizum

mipago WALLET MiPago Wallet.

☐ Administrazioaren leihatilan ordaintzea (Dirubilketarako organuen herri-langileak bakarrik)

< ORDAINKETEN ZERRENDARA ITZULI

SARTU >

Ordainketa plataformak Internetez egiten dugun beste edozein ordainketa bezala funtzionatzen du: ordainketa sistema aukeratu, hala badagokio txartelaren datuak sartu eta ordainketa onartzea...

Parte-hartze eskaera bukatutakoan, EHUK erregistroan eman dugun posta elektronikora eskaera zuzen egin dugunaren mezua bidaliko digu.

[\[↑ Itzuli aurkibidera\]](#)

EPEaren INFORMAZIOA ETA JARRAIPENA

Goran aipatu bezala, EHU da informazio-iturri ofiziala. Aurreko EPEetako eskarmentuari erreparatuta, ohikoena EHUK berak oposaketan ematen den pauso bakoitzaren berri

partaide diren guztiei helaraztea da. Hala ere, EHUtik iritsi daitezkeen berriei zain egon beharrik gabe, gure kabuz eta momentu oro, badugu informazioa eskuratzeko biderik.

Bi dira modurik egokienak. Bata, izena emateko prozesuan ikusi dugun Lan Eskaintzen Atariaren bitartez; eta bestea, EHUn web gunearen bitartez.

Lehenengoan, Lan Eskaintzen Atarian identifikatu eta sartu eta gero “Zure eskaerak” estekan klik eginda hurrengo pantailan hiru informazio mota topatzen dugu:

Atal honetan UPV/EHUn lan-eskaintzen deialdiak ikusi ahal izango dituzu eta, eskariak aurkezteko epea zabalik dagoen bitartean, izena eman ahal izango duzu zure interesekoetan. Kontuan izan eskariak bidali ondoren ezin direla aldatu.

Eskaera berria

Atal honetan UPV/EHUn lan-eskaintzen deialdietan parte hartzeko egin dituzun eskariak kontsultatu ahal izango dituzu.

Zure eskaerak

Klik egin hemen
dituzun eskaeren
egoera ikusteko

Atal honetan UPV/EHUK zutaz eta Lan-eskaintzen Atariari lotuta duen informazioa kontsultatu ahal izango duzu, bai eta helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa aldatu ere. Kontuan izan, aldaketa egin duzunez aurrera, izena emandako prozesu guztiei buruzko komunikazioak edo eta jakinazpenak helbide, telefono edo posta elektronikora helduko zaizkizula, besterik adierazten baduzu. Egiaztatutako hizkuntza-eskakizun eta titulazio-taldeari buruzko datuak ere aldatu ahal izango dituzu. Orria aldatu aurretik, egiaztatu ondo gorde dituzula datu berriak. Zalantzarik izanez gero, egin klik “Kontsultak” estekan.

Zure datu pertsonalak

- ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN HAUTAKETA PROZESUAK GUZTIAK: irekita dauden prozesuez gain, 2019-2022 EPEa eta lan-kontratudunetan ebatzi gabe dauden lan-poltsen deialdiak agertzen dira.

OHARRA: Gida hau idazterakoan oraindik ez dago dokumentaziorik.

- ZURE ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN HAUTAKETA PROZESUAK: hemen parte-hartzailea zaren prozesuen informazioa eskuratu dezakezu.

OHARRA: 2019-2022 EPEan parte hartu bazenuen, “Puntuazioa kontsultatu” zutabean klik eginda, orduko oposaketa fasean lortutako puntuazioa ikus dezakezu.

ZURE ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN HAUTAKETA PROZESUAK							
Deialdia	Hautaketa-prozesua	Eskariak aurkezteko epea	Eskaria kontsultatu	Zerrenda kontsultatu	Puntuazioa kontsultatu	Lanpostuak hurrenkeraren arabera eskatzea	Lanpostura joatearen inguruko aukeren inprimakia
EPE 2019_2020_2021_2022 AZPko F/L	Administrariaren eskala (Ohiko prozesua)	2023-01-09 -> 2023-01-30	?	→	→	→	→
EPE 2019_2020_2021_2022 AZPko F/L	Administrari laguntzaileen eskala (Barne promozioa)	2022-11-08 -> 2022-11-28	?	→	→	→	→

Klik egin hemen 2019-2022 EPEan lortu zenuen puntuazioa bistaratzeko

- ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN LAN POLTSEN EGOERA: jada EHUKo lan-poltsaren baten partaide bazara, zure egoera ikus dezakezu.

EPEaren inguruko informazioa lortzeko bigarren bidetik jotzeko, lehenik 2023/2024 EPEaren web gunera sartzeko argibideak azalduko ditugu.

EHUren web orrian askotariko informazioa dago, besteren artean, ikasketei buruzkoa, egiturari buruzkoa edo bertako langileei buruzkoa. EPEaren gaineko informazioa topatzea da guri interesatzen zaiguna.

Inoiz EHUren web orrian <https://www.ehu.eus/eu/> sartu bazara hau da topatuko duzuna:

Matrikula gradu
1.mailan
5. zerrenda: irailak 3


Klik egin hemen TEKAZEL (irakasleak ez diren) langileen atalera iristeko

EHUn klik eginda:

Klik egin hemen TEKAZEL langileen atalera iristeko

EHU: gure izaera
Unibertsitate publiko batez hornitzeko saiakeren historia luze baten ondoren, azkenean 1980an

TEKAZEL zerbitzuan klik eginda, Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileentzako atalean sartuko zara. Ondoren, eskuinean dagoen estekan klik eginez, berariaz sortutako, 2023/2024 EPEaren gunean sartu ahalko duzu:



EPEaren guneko lehen orrialdean zera topatuko dugu: EPEaren azalpen laburtua; barne promozioaren azalpenak eta azkenik, sarbide orokorraren deialdiaren azalpenak eta bi esteka:

- ▶ [Deialdi espezifikoaren informazioari esteka](#)
- ▶ [Lan-eskaintzen ataria](#)

Lehenengo estekak (Deialdi espezifikoaren informazioari esteka) orri berri bat zabaltzen du, bertan, “Prozesuen zerrenda” deituriko kuadro batean, bananduta agertzen dira EPEan eskaintzen diren talde eta espezialitate ezberdinen laburpenekin batera, horietako bakoitzaren orrira joateko esteka.

Kuadroan 2023/2024 EPEaren taldeekin batera 2019-2022 EPEaren taldeak azaltzen dira. “EGOERA” zutabean, 2023/2024koak “Zabalik” eta 2019-2022koak “Itxita”.

OHARRA: testu hau idazterakoan (2026ko abuztuaren 30a), Administrari Laguntzaileak Barne Promozioa - 2026ko Uztailaren 15a - Egoera “Itxita” eta Menpekoen Eskala - 2026ko Uztailaren 15a - Egoera “Itxita” agertzen dira. Litekeena da, zuzendu eta irailaren lehenetik aurrera hauek ere “Zabalik” azaltzea.

Gida honetan, interesatzen zaiguna partaide garen taldearen informazioa non aurkitu dezakegun jakitea denez, berdin jokatu dugu “Zabalik” zein “Itxita” azaldu. Egoera

'Itxita' egon arren esteka erabili daitekeenez, parte-hartzen dugun taldearen parean dagoen loturan klik egingo dugu, prozesuaren gunera joateko.

Enplegu Publikorako Eskaintza	Funtzionarioa	Batxilergoa, LH2	Administrarien Eskala	2026ko Uztailaren 15a	Zabalik
Enplegu Publikorako Eskaintza	Funtzionarioa	Eskola-graduata, LH1	Administrari laguntzaileen eskala (Barne promozioa)	2022ko Urriaren 20a	Itxita
Enplegu Publikorako Eskaintza	Funtzionarioa	Eskola-graduata, LH1	Administrari Laguntzaileak Barne Promozioa	2026ko Uztailaren 15a	Itxita
Enplegu Publikorako Eskaintza	Funtzionarioa	Eskola-agiria	Menpekoen eskala (Ohiko prozesua)	2022ko Urriaren 20a	Itxita
Enplegu Publikorako Eskaintza	Funtzionarioa	Eskola-agiria	Menpekoen Eskala	2026ko Uztailaren 15a	Itxita

Hemen klik egin Menpekoen Eskalako 2023/2024 EPEaren gunera joateko

Adibide honetan, 2023/2024 EPEan Menpekoen Eskalaren informazioa aurkitu nahi dugu. Beste orrian batzuetako edo beste taldeetako informazioa eskuratzeko, dagokion tokian klik egingo dugu. Behin sarbidean sartuta, “Deialdia”, “Epaimahaiak”, “Behin-behineko onartu eta baztertuen zerrenda”, “Behin betiko onartu eta baztertuen zerrenda” eta “Hautaketa-prozesuaren garapena” loturak aurkitzen ditugu.

Deialdia loturaren bitartez, deialdiaren oinarrietara, izena emateko loturara “Web Bidezko Eskaria”, galdetegietara eta informazioa gehigarria iristen gara. Gainerakoetan, egun hutsak dauden arren, EPEak aurrera egin ahala, bakoitzak bere izenak dioen informaziora garamatza.

Honaino eta arestian aipatu bezala, EHUK zabaldu dezakeen informazioari zain egon gabe, edozein momentuan EPEari buruzko informazioa lortzeko egin behar den bideen azalpena.

AZKEN HITZAK

Hitzaurrean aipatu bezala, gida honen asmoa EPEko lehendabiziko pausoak ematen laguntzea izan da. Prozesuak aurrera egin ahala, gure webgunearen edota posta elektronikoaren bidez informazio osagarria helaraziko dizugu.

Nolanahi ere, zure zalantza, kontsulta edo galderei erantzuteko prestutasun osoa dugula adierazi nahi dizugu. Edozertarako behar bazenigu, jar zaitez gurekin harremanetan ondoko posta edo telefono zenbakien bitartez.

[\[↑ Itzuli aurkibidera\]](#)

LAB-EHU

www.labehu.eus

Donostian: lab.donostia@ehu.eus tfnoa. 943 018435 / 943 018469

Gasteizen: lab.gasteiz@ehu.eus tfnoa. 945 014374

Leioan: lab.leioa@ehu.eus tfnoa. 946 012436 / 946 015288

LAB
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA

Elkar babes dezagun,
AFILIATU 

[\[↑ Itzuli aurkibidera\]](#)

LAB⁷

**EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA**